

Artezkaritza kontseiluaren bilera-data

Datorren asteazkenean, ekainak 17, Artezkaritza Kontseiluaren hurrengo bilera izango da. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinarazi dezakezue.



Liburutruk bermea

Ekaineko erreziboekin batera **Liburutruk bermearen** kobrantza egingo zaie **2026/27** ikasturtean bertan parte hartuko duten ikasleei. Kobratuko den zenbatekoa **60 €** izango da.



ALEXIAfik INIKArA

26/27 ikasturtean, ikastola eta familien arteko kudeaketa INIKA programaren bidez egingo da, eta Alexia ez da aurrerantzean erabiliko.

Aurrerago, INIKAREN erabiltzailea eta pasahitzarekin batera bideo-tutorial batzuk bidaliko dizkizuegu, erabilera errazteko.

Erabiltzaile-izena eta pasahitza jasotzen dituzuen unean, INIKA mugikorreko aplikazioa deskargatzea gomendatzen dizuegu, ikastola eta familien arteko komunikazio egokia bermatzeko.

Edozein zalantza edo languntza behar baduzue idazkaritzarekin jarri harremanetan.



2026/2027 ikasturterako zerbitzuetan izen-ematea

Garraio-zerbitzua

Datorren ikasturterako garraio-zerbitzua antolatzen hasiak gara. Gogoratu, izen-ematea urtero egin behar dela, erabiltzaile berria izan ala ez. Ibilbideak eta geltokiak izena eman duten erabiltzaileen beharren arabera egokitzen dira. Zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusiz gero, [galdetegi hau](#) **ekainaren 19a** baino lehen erantzun beharko duzue.



Edozein zalantza edo argibidetarako usurbil@ikastola.eus helbidera zuzendu.

Goizeko zaintza

Egunero, ikasturte osoan, 8:00-9:00 orduetean Agerialdeko eraikinean zerbitzu hori eskaintzen da. Izen-ematea **ekainaren 19a** bitarte egin daiteke [galdetegi hau](#) betez.

Arratsaldeko zaintza

Irailean zehar, klase orduak goizetik soilik direnean, 14:30-16:30 orduetean zaintza eskainiko da, ikasle kopuru minimoa osatzen bada. Zerbitzua behar izanez gero, bete mesedez [galdetegi hau](#) **ekainaren 19rako**.

Jangela

Datorren ikasturteko jangelako zerbitzua antolatzeko, familien beharrak zeintzuk diren jakin behar dugu, hori dela eta, mesedez, [galdetegi hau](#) **ekainaren 19a** baino lehen betetzea eskatu nahi dizuegu.

Araba Euskaraz

Araba Euskaraz 2026 Arabako ikastolen jai handia igande honetan ospatuko da Amurrion. Arabako zortzi ikastolen laguntzarekin, aurtengo edizioaren antolakuntza nagusia herriko Aresketa Ikastolak hartu du bere gain.



Edizio honetarako aukeratutako leloa "**Taupadak berpiztu!**" da. Logotipoak bihotz baten erdian kokaturiko txinparta elektriko bat irudikatzen du, euskararen erabilerari bulkada indartsu berri bat emateko helburuarekin. [Informazio gehiago...](#)

Ekainaren 13an, Euskaltzaleon Martxa Iruñean

Euskaltzaleon martxa lelopean, ekainaren 13an Iruñako kaleak betetzeko mobilizazio jendetsua antolatzen ari gara euskalginzaren Kontseilua osatzen dugun erabileak.

Gero eta gehiago dira euskararen etorkizunaren gaineko kezka eta larritasuna adierazten dituzten datuak eta ikerketak,, eta zailtasun horiei erantsi behar zaie euskararen biziberritzearen aurkako oldarraldi antolatu bat.

Hala ere, sinetsita gaude posible dela euskararen biziberritzeari bultzada ematea, Pizkunde berri bat eragitea, eta horretarako ezinbestekoa dela euskaltzaletasunaren giharra indartzea. Horretara dator ekainaren 13ko mobilizazioa, euskaltzaleok antolatzera, Euskaraz bizitzeko behar den dena aldarrikatzera.

Martxa arratsaldean egingo dugu. 17:00etan Iruñako hiru puntu ezberdinetan bilduko dira herritarrak: Antoniutti, Runako Parkea eta Askatasun Enparantza. Puntu hauetatik Iruñako kaleak harrotasunez beteko dituzten hiru zutabeak abiatuko dira. Zutabeek Gazteluko Plazan bat egingo dute eta bertan egingo da akitaldi politikoa, amaiera berezi bat emanez.

Zutabeetako bakoitzak euskarak behar duen Pizkunderako ezinbestekoa diren hiru oinarrietako bana ordezkatu du: Ofizialtasun osoa, Jauzia hizkuntza politikoetan eta Euskaltzaletasuna.

HAUR HEZKUNTZA

HH 5eko gurasoei zuzendutako bilera deialdia

Datorren asteazkenean, **ekainak 17, LH1eko bilera** egingo dugu, mailako antolaketaren informazio orokorra emateko. 1. mailako espazio irekian bilduko gara **16:30ean**.



Ur-festa

Ekainaren 19an, ostirala, eguraldiak laguntzen badu, ur-festa egingo dugu HH-n. Haurrak bainujantzia soinean jantzita, bustitzeko oinetakoekin eta kremaz igurtzirik bidali, mesedez. Motxilan toaila eta aldatzeko arropa sartu.

Jolaserako materiala guk jarriko dugu.



Paperezko poltsa

Gogorarazi nahi dizuegu zuen seme-alabek hiruhilabete honetan egindako lanak etxera eramateko paperezko poltsa ekarri behar dutela.



LEHEN HEZKUNTZA

LH 4ko irteera: Piraten etxea

Dakizuen bezala, hurrengo astean, **ekainak 17-18, "Piraten etxera"** (Pascia) goaz gaua pasatzera. Ostegunean, **hilak 18**, bueltatuko gara **16:30etan**.


Eraman beharrekoen zerrenda ikasleek eramán dute etxera.



Ur-festa

Ekainaren 19an, ostirala, LH-ko ikasleek ur-festa egingo dugu. Ikasleak bainujantzia soinean eta toaila ekarri beharko ditu. Etxean eguzkitako krema emanda etortzea komeni da.

Hamaiketako berezia egingo dugu eta, horretarako, ikasle bakoitzak edalontzi bat ekarri behar du.



Ebaluazio-txostenak

Datorren ostiralean Lehen Hezkuntzako noten txostenak Alexia aplikaziora igoko dira.



Galdutako gauzak

Agerialdeko sarreran dagoen "arropa galduen txokoa" dagoen arropa, ekainaren 19an Caritaseko ontzira eramango da.



BIGARREN HEZKUNTZA

Irteeren kobrantza

❖ DBH3

DBH3ko ikasleek, Hondarribira egindako irteeraren kitapena egiteko kobrantza, **ekainaren 15ean**, astelehena, egingo da. Kobrantzaren zenbatekoa **32 €** da.

❖ DBH1

DBH1eko ikasleek, Arantzara egindako irteeraren kitapena egiteko kobrantza, **ekainaren 15ean**, astelehena, egingo da. Kobrantzaren zenbatekoa **42,10 €** da.



Azken asteko ordutegia

Ikasturtea amaitzeko astebete eskas geratzen da eta ordutegi berezi bat prestatu dugu ikasturte amaierarako. Batetik ohiko azterketak dituzten ikasleei begira eta bestetik guztia gaindituta dutenek aste polit eta ikasketaz betea izan dezaten.

Hilaren 12tik aurrera 12:30etan amaituko da ikastolako ordutegia.

Ohiko frogak 17 eta 18an izango dira ondorengo ordutegian:



	Ekainak 17	Ekainak 18
8:40-9:30	Fisika-Kimika	English
9:30-10:20	Euskara eta Literatura	Biologia-Geologia
10:45-11:40	Matematika	Gizarte Zientziak
11:40- 12:30	Gaztelera eta Literatura	Teknologia

Ekainaren 12, 15 eta 16an indartze saio bereziak izango dira froga hauek prestatzeko.

Guztia gaindituta dutenek hitzaldi, ikastaro, eta proposamen anitzak izango dituzte ordu horietarako.

Ekainaren 19an guztiek amaituko dute ikasturtea 12:30etan, ondoren DBH4ko ikasleen agur ekitaldia ospatuko dugu irakasle eta ikasleen artean.

DBH4-ko familiei oharra

DBH4. mailako ikasleen chromebooken bermea ekainean bukatuko da eta komeni da begiratzea ea konpontzera eramateko zerbait ote duen gailuak; pantaila puskatuta edo pitzatuta, teklaren bat falta,... Hala bada, IKT-ko arduradunarengana jo beharko du ikasleak eta ikastolak konpontzera eramango du.



